



LEHENDAKARITZA

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusia
Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030
Dirección de Innovación Social

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 20koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkari Nagusiarena, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko bi beka hautatzeko prozesuaren deialdia ebazten duena.

Martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren bidez, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko beken programa sortu eta arautu zen. Tresna horren helburua da profesional gazteak erakartzea eta prestatzea, 2030 Agendaren esanahiaren hedapena hobetzeko, eta GJHeK adierazten duten eraldaketarako gizarteratze-mekanismoak artikulatzeko.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiaren 2023ko martxoaren 30eko Ebazpenaren bidez, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko beken deialdia egin zen 2023-2024rako, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa arautzen duen martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 5. artikularekin bat etorritz.

Hautaketa Batzordea, 34/2023 Dekretuaren 10. artikuluan arautua eta 2023-2024 eperako beken deialdiaren ebazpenaren 4. artikulua izendatua, honako hauek osatzen dute:

- Berrikuntza Sozialaren zuzendaria: Asier Aranbarri Urzelai jauna, batzordeburua.
- Lehendakaritzako teknikaria: Mikel Meneses Arenas, Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzako teknikaria, batzordekide lanak egiten dituena.
- Lehendakaritzako teknikaria: Susana de Irazu Sopeña, Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzako teknikaria, batzordeko idazkaria.

Egungo Hautaketa Batzordeak egindako proposamena kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. – Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko bi beken onuradun gisa esleitzea I. Eranskinean zerrendatutako pertsoneri.

Bigarrena.- Beka gozaten hasteko eguna irailaren 4a izango da.

Hirugarrena. – Ordezkoen zerrenda onartzea, uko egiterik edo bestelako gorabeherarik gertatuz gero, balorazio-irizpideak aplikatzearen ondoriozko lehentasun-ordenan, martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 11.2 artikuluan jasotzen den bezala (II. Eranskina).

Laugarrena. – Beka ukatzea III. eranskinean jasotako pertsoneri.

Bosgarrena. – Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.



Seigarrena. – Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko ekainaren 20an.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkari Nagusia

JONAN FERNANDEZ ERDOCIA.

I. ERANSKINA

Beken onuradunak

1. Elena Etxepare Buissan (xxx7630xx).
2. Leire Abecia Ramos (xxx4684xx).

II. ERANSKINA

Ordezkoen zerrenda

1. Aitor Fuentes Gurrutxaga (xxx2668xx).
2. Leire Ruiz de Azua Beitia (xxx5892xx).
3. Aisling Bux Romatet (xxx4509xx).
4. Nerea Otamendi Esnaola (xxx9927xx).
5. Javier Azurmendi del Valle (xxx5291xx).
6. Amaia Barasorda Etxebarria (xxx3433xx).

III. ERANSKINA

Ukatutako eskabideak

1. Maria Trejo Calderón (xxx9007xx).
Ez da iristen 25 puntuko gutxieneko puntuaziora merezimenduak baloratzeko fasean.
2. Esther Cazorla Moreno (xxx6896xx).
Ez zuen alegatutako merezimenduen egiaztagiririk aurkeztu.